



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko otsailaren 20a

11. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak, ekonomiaren egungo egoera ikusita, autogobernuaren arloan duen jarrera orokorrari buruzkoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak egina (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da departamentuen arteko koordinaziorako prozedurak ezar ditzan, babespean edo/eta berreziketan dauden adingabeek lehentasuna izate aldera osasun laguntzako zirkuituetan, baldin eta osasun laguntza edo/eta hezkuntza arlokoa behar badute. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, Bardeako Batzarra eta hura osatzen duten udalak eta entitateak premiatzen dira estatutuen eta erregelamenduen demokratizazioa susta dezaten, batzarraren funtzionamenduari eta hautatzeko prozedurari dagokienez. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen du Diputatuen Kongresuak ikertzea eta argitzea CIAk Torrejóngo, Rotako eta Moróngo baseak legez kanpo erabili izana presoak Guantanamo eramateko bidaietan. Mozioa bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Barne Ministerioa premiatzen da osasun arazo larriak eta ezgaitzaileak dituzten presoen askatzea bultzatuz. Mozioa bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Posusa enpresa publikoa lehenbailehen likidatuz. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, Teresa Bautista Merino eta Felicitas Martínez Sánchez kazetarien heriotza argitzearen aldekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko zergatik ez den taxutu Nafarroan Kulturaren Plan Estrategikoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (9. or.).
- Galdera, industria jarduerarako porrot egin eta gaur egun Nafarroako Gobernuaren esku dauden edo parte-hartze publikoa duten instalazioak eta higiezinak berrerabili eta abian jartze aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen politikei eta jarduketa-ildoei buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (9. or.).
- Galdera, Hezkuntza kontseilariak aurkeztutako Ikastetxeetako berdintasun Planari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (10. or.).
- Galdera, jakiteko zertan den Nafarroako udaletan idazkarien lanpostu hutsak betetzen ari direnak gaitzeko prozesua eta auzia konpontzeko epea, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (11. or.).
- Galdera, jakiteko ea kontseilariaren ustez 500 euro aski den Caparrosoko liburutegian 2009an liburuak erosteko, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (11. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik babestu duen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Barañaingo kultura zinegotziaren erabakia, zeinaren ondorioz liburutegi publikoan otsailetik aurrera ez baitaude Berria eta Gara egunkariak, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Irunberriko Udal Planaren aldaketari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Uharteko Udalak Arte Garaikidearen Zentroa dela-eta izandako bilerei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (13. or.).
- Galdera, garapenerako lankidetzari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko ea 2009ko aurrekontuan kontusailen bat dagoen Iruñeko ospitaleetara etorri behar dutenen joan-etorriak ordaintzeko, Ana Figueras Castellano andreak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko zertan oinarritu zen Nafarroako Gobernuak 2009rako aurrekontu orokorren proiektuko dirusarreraren atala prestatzeko, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2008ko irailaren 19ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra kentzeko zuzenketa.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Azken xedapena kentzeko zuzenketa.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Izenburua kentzeko zuzenketa.

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena kentzeko zuzenketa.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak, ekonomiaren egungo egoera ikusita, autogobernuaren arloan duen jarrera orokorrari buruzkoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuak, ekonomiaren egungo egoera ikusita, autogobernuaren arloan duen jarrera orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Maiorga Ramirezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 181. artikuluen eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Zioen azalpena

Gaur egungoa bezalako egoera ekonomiko batean, beharrezkoa da eskuragarri ditugun baliabide eta estrategia guztiak aztertu eta erabiltzea, herritarren eskubideen eta ongizatearen zerbitzura jartze aldera. Langabeziari buruzko datu kezagarriak, industria-jarduera gelditzeak, deflazio-arriskuak, hazkunde ekonomiko negatiboko aurreikus-

penek eta krisiak berezkoak dituen ondorio guztiek eskatzen dute ordezkari publikoek ahalik eta zorrotasun eta erantzukizun handienarekin jardun dezaten eta ahalegin handiena egin dezaten, egoera bideratzeko eta egungoa bezalako krisi egoera batean ahul agertu diren sektore eta egiturak indartzeko.

Horrekin lotuta, Nafarroan baditugu, gaur egun, arlo desberdinetako baliabide berezkoak, gure eskubide historikoetatik eratorriak. Baliabide horiek ahalbidetzen digute gure gizarteak behar dituen arau- eta jardun-estrategiak gure berezitasunetara eta beharizantetara egokitzea. Hala ere, gaur egun oraindik ez ditugu dagozkigun tresna eta eskumen guztiak, eta beharrezkoa da aztertzea, bereziki gaur egungo krisi egoeran, guri dagozkigun arren baliatu ezin ditugun eskumenak gure gain hartzea eta gure jarduteko askatasuna zabaltea arlo desberdinetan, erakundearen eta legegilearen jarduna optimizatzeko eta eragin zuzena, eraginkorra eta egokia lortzeko gure lurraldean.

Hori dela eta, parlamentari honek jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, ezagutze aldera Nafarroako Gobernuak, ekonomiaren egungo egoera ikusita, autogobernuaren arloan duen jarrera orokorra, bai eta bere ustez zeintzuk diren bere gain hartu beharreko eskumenak, erakundearen jardunaren eraginkortasuna hobetze aldera gure egitura ekonomiko eta sozialak indartzeari dagokionez.

Iruñean, 2009ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da departamentuen arteko koordinaziorako prozedurak ezar ditzan, babespean edo/eta berreziketan dauden adingabeek lehentasuna izate aldera osasun laguntzako zirkuituetan, baldin eta osasun laguntza edo/eta hezkuntza arlokoa behar badute.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita departamentuen arteko koordinaziorako prozedurak ezar ditzan, babespean edo/eta berreziketan dauden adingabeek lehentasuna izate aldera osasun laguntzako zirkuituetan, baldin eta osasun laguntza edo/eta hezkuntza arlokoa behar badute.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da departamentuen

arteko koordinaziorako prozedurak ezar ditzan, babespean edo/eta berreziketan dauden adingabeek lehentasuna izate aldera osasun laguntzako zirkuituetan, baldin eta osasun laguntza edo/eta hezkuntza arlokoa behar badute.

Zioak

Nafarroako fiskal nagusiak eta adingabeen fiskalak lan bilera batean eginiko agerraldian, agerian geratu zen Foru Komunitatean beharrezkoa dela adingabeei arreta integrala ematea.

Dagoen legeria nahikoa da eta, baliabideei dagokienez, inoiz nahikoak izaten ez badira ere, egon badaude, baina beharrezkoa da horiek koordinatzea, jardunaren eraginkortasuna hobetze aldera.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du departamentuen arteko koordinaziorako prozedurak eta sistemak ezar ditzan, babespean edo/eta berreziketan dauden adingabeek lehentasuna izate aldera osasun laguntzako zirkuituetan, baldin eta osasun laguntza edo/eta hezkuntza arlokoa behar badute.

Iruñean, 2009ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, Bardeako Batzarra eta hura osatzen duten udalak eta entitateak premiatzen dira estatutuen eta erregelamenduen demokratizazioa susta dezaten, batzarraren funtzionamenduari eta hautatzeko prozedurari dagokienez.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua, Bardeako Batzarra eta hura osatzen duten udalak eta entitateak premiatzen baitira estatutuen eta erregelamenduen demokratizazioa susta dezaten, batzarraren funtzionamenduari eta hautatzeko prozedurari dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Beste entitate eta administrazio-batzar batzuen eredutik ondorioztatzen den moduan, Bardeako Batzarraren administrazio-organo tradizionalen hautaketaren eta funtzionamenduaren demokrati-

zazioa beharrezkoa bilakatu da, bai eta garai berrien eskakizuna ere; are gehiago, batzuetan, erakunde eta alderdi politikoen esku-hartzeak mugatu eta galarazi egin baitu Batzarreko kideek libreki erabaki ahal izatea.

Bardeako gozamen-kide izaera, nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak, eskubide historikoak dira eta horien titulartasuna herritarrei dagozkie, hau da, herri, ibar eta entitate desberdinetako biztanleei. Toki erakundeen eta bestelako entitateen bidez duten ordezkartza ez dator bat ildo eta irizpide demokratikoekin, eta beharrezkoa da egoera hori konpontzea. Horrekin lotuta, nahikoa da gogora ekartzea La Olivako Monasterioak eta tuterar guztiak ordezkartza berdina dutela.

Modernizaziorako eta ingurumenaren ikuspegi berrietarako eta Bardeak behar dituen erabilera solik zibiletarako aldaketa-prozesuak eskatzen du Batzarreko parte-hartzea ildo eta irizpide demokratikoen bidez arautzea.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua, Bardeako Batzarra eta hura osatzen duten udalak eta entitateak premiatzen ditu estatutuen eta erregelamenduen demokratizazioa susta dezaten, Batzarraren eta haren organoen funtzionamenduari eta hautatzeko prozedurari dagokienez, kontuan hartu irizpide demokratikoak aplikatu behar direla eta Batzarraren zuzeneko hautaketa, gozamen-kide diren herri eta entitateetako herritarren boto zuzenaren bidezkoa.

Iruñean, 2009ko otsailaren 12an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen du Diputatuen Kongresuak ikertzea eta argitzea CIAk Torrejóngo, Rotako eta Moróngo baseak legez kanpo erabili izana presoak Guantanamora eramateko bidaietan.

MOZIOA BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen du Diputatuen Kongresuak ikertzea eta argitzea CIAk Torrejóngo, Rotako eta Moróngo baseak legez kanpo erabili izana presoak Guantanamora eramateko bidaietan."

Legebiltzarreko Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzorde Bereziak 2009ko otsailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko abenduaren 19ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Barne Ministerioa premiatzen da osasun arazo larriak eta ezgaitzaileak dituzten presoek askatzea bultzatuz.

MOZIOA BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Barne Ministerioa premiatzen da osasun arazo larriak eta ezgaitzaileak dituzten presoek askatzea bultzatuz."

11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko urtarrilaren 15eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Posusa enpresa publikoa lehenbailehen likidatuz.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Posusa enpresa publikoa lehenbailehen likidatuz."

ko bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Teresa Bautista Merino eta Felicitas Martínez Sánchez kazetarien heriotza argitzearen aldekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio ezen, Kanpo Arazoetako Ministerioaren bitartez, Mexikoko Errepublikako Proku-

radoretza Nagusiari bere kezka azal diezaion, Teresa Bautista Merino eta Felicitas Martínez Sánchez kazetarien heriotzatik heldu diren erantzukizunak argi daitezen”

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zergatik ez den taxutu Nafarroan Kulturaren Plan Estrategikoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik ez den taxutu Nafarroan Kulturaren Plan Estrategikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak ez du prestatu oraindik Nafarroako kultur eragile guztiek eskatzen ari diren Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa?

Iruñean, 2009ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, industria jarduerarako porrot egin eta gaur egun Nafarroako Gobernuaren esku dauden edo parte-hartze publikoa duten instalazioak eta higiezinak berrerabili eta abian jartze aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen politikei eta jarduketa-ildoei buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, industria jarduerarako porrot egin eta gaur egun Nafarroako Gobernuaren esku dauden edo parte-hartze publikoa duten instalazioak eta higiezinak

berrerabili eta abian jartze aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen politikei eta jarduketa-ildoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, ahoz erantzun dezan.

Zioen azalpena

Gaur egungo egoera ekonomikoaren ondorioz –zailtasunak dituzten enpresak, enplegu-erregulazio espedienteak eta krisiaren beste inguruabar batzuk–, ezinbestekoa da jakitea, krisiari aurre egiteko eta enplegua eta langileak babesteko PSNrekin hitzartutako neurriez gain, zer asmo duen Nafarroako Gobernuak, zuzenean edo Nafincoren moduko enpresa publikoen bidez –instalazioak erosten joan zen, hala nola Tafallako Tecal

40 zena, eta aldi batez itxita egon ondoren ez zen bete hura berrerabiltzeko konpromisoa–, bere esku duen industria-higiezinaren ondareari dagokionez.

Badira halako beste kasu batzuk, eta ondarea kudeatu egin behar da, bai erabilera industrialera edo bestelako erabileraren baterako, baina erabileraren bat eman behar zaio. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Zer politikari jarraitu dio eta zer jarduera-ildo ditu aurreikusita Nafarroako Gobernuak industria jarduerarako porrot egin eta gaur egun Nafarroako administrazio publikoaren esku dauden edo parte-hartze publikoa duten instalazioak eta higiezinak berrerabili eta abian jartze aldera?

Iruñean, 2009ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Hezkuntza kontseilariak aurkeztutako Ikastetxeetako Berdintasun Planari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza kontseilariak aurkeztutako Ikastetxeetako Berdintasun Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zertan datza Hezkuntza kontseilariak proposatu duen Ikastetxeetarako Berdintasun Plana, desberdintasuna agerian geratzen bada zenbait gertaeratan, hala nola irakasleak gizonezkoak edo emakumezkoak izateagatik kontratatzea ikasleak sexuaren arabera banatzen dituzten ikastetxeetan?

Iruñean, 2009ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko zertan den Nafarroako udaletan idazkarien lanpostu hutsak betetzen ari direnak gaitzeko prozesua eta auzia konpontzeko epea.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zertan den Nafarroako udaletan idazkarien lanpostu hutsak betetzen ari direnak gaitzeko prozesua eta auzia konpontzeko epea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zertan da Nafarroako udaletan idazkarien lanpostu hutsak betetzen ari direnak gaitzeko prozesua eta zein epe beharko da, kontseilariaren iritzi, auzia konpontzeko eta egoera normal batera iristeko?

Iruñean, 2009ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko ea kontseilariaren ustez 500 euro aski den Caparrosoko liburutegian 2009an liburuak erosteko.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea kontseilariaren ustez 500 euro aski den Caparrosoko liburutegian 2009an liburuak erosteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko erregelamenduen babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo kontseilariak ahoz erantzun dezan.

Kontseilariaren ustez, 500 euro aski al dira Caparrosoko liburutegian 2009an liburuak erosteko?

Iruñean, 2009ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko zergatik babestu duen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Barañaingo kultura zinegotziaren erabakia, zeinaren ondorioz liburutegi publikoan otsailetik aurrera ez baitaude Berria eta Gara egunkariak.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik babestu duen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Barañaingo kultura zinegotziaren erabakia, zeinaren ondorioz liburutegi publikoan otsailetik aurrera ez baitaude Berria eta Gara egunkariak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudiaren xedatutakoaren arabera, Barañaingo Liburutegia dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuako Kultura Departamentuko Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Kultura eta Turismo Batzordean.

Barañaingo liburutegi publikoan, otsailaz geroztik, ez daude Berria eta Gara egunkariak, hango Kultur zinegotziak horrela aginduta. Barañaingo liburuzainek eta Nafarroako Liburuzainen Elkarteak kultur zinegotziaren esku-sartzea salatu dute, eta «zentsura» hitza erabili dute. Gainera, aurrekari «oso arriskutsutzat» jo dute erabakia.

Zergatik babestu du Kultura eta Turismo Departamentuak kultura zinegotziak hartu duen erabakia?

Iruñean, 2009ko otsailaren 12a

Foru-parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Irunberriko Udal Planaren aldaketari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Irunberriko Udal Planaren aldaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Irunberriko udal planaren aldaketa dela eta, hauxe jakin nahi dut:

– Irunberriko udal planaren aldaketak ahalbide-tu du Acciona enpresa ezartzeko beharrezkoak diren lanak hastea. Zeintzuk dira arrazoiak Nafarroako Gobernuak ez erantzuteko Urraulbeitiko Udalak aldaketa horri aurkeztutako alde aurreko errekerimenduari?

– Acciona jartzeko lanak hastea ahalbidetu duen Irunberriko udal planaren aldaketa Irunberriko Udalak izapidetu du eta Urraulbeitiko Udalak alde aurreko errekerimendua aurkeztu zuen, zeinaren bidez agerian jarri zituen espedienteko irregularitasunak. Ba al du Nafarroako Gobernuak irregularitasun horien berri?

– Zerikusirik izan al zuen aurreko Lurralde Antolamendu kontseilariak parte hartu izanak Accionaren eta Irunberriko Udalaren arteko nego-

ziazioan, zerga-barkatzea eta lursailak lagatzea aurreikusten zuen hitzarmen batean amai zedin?

– Nafarroako Gobernuak hartu al du Acciona Irunberri ezartzeko konpromisorik?

– Nafarroako Gobernuak hartu al du konpromiso berezirik ur-hornidurari edo garrantzizko beste gairen bati buruz?

Iruñean, 2009ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Uharteko Udalak Arte Garaikidearen Zentroa dela-eta izandako bilerei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Uharteko Udalak Arte Garaikidearen Zentroa dela-eta izandako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zein izan da Uharteko Udalarekin izandako bileren prozesua, Uharteko Arte Garaikidearen Zentroaren balioa nabarmentze aldera? Zeintzuk dira aztertutako gaiak eta ateratako ondorioak? Zein izanen da Kultura Departamentuak arte garaikideko zentro horretan izanen duen parte-hartzea?

Iruñean, 2009ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, garapenerako lankidetzari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, garapenerako lankidetzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Garapenerako lankidetzari buruzko galdera

- Zein izan da garapenerako lankidetzarako laguntza –kopurua eta BPGaren eta Nafarroako aurrekontu orokorraren ehunekoak– 2007an, 2008an eta 2009an?

- Zer osagai hartzen dira kontuan garapenerako lankidetzarako laguntzaren ehunekoak kalkulatzeko, BPGn eta Nafarroako aurrekontu orokorrean oinarrituta?

- Zergatik ez dira betetzen Pobreziaren aurka Nafarroako Itunean garapenerako laguntza ofizialerako aurrekontuan dirua jartzeari buruz hartutako konpromisoak?

Iruñean, 2009ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko ea 2009ko aurrekontuan kontusailen bat dagoen Iruñeko ospitaleetara etorri behar dutenen joan-etorriak ordaintzeko.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea 2009ko aurrekontuan kontusailen bat dagoen Iruñeko ospitaleetara etorri behar dutenen joan-etorriak ordaintzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osasun Departamentuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Duela gutxi, osasun arloko garraioari buruzko lan-mahai bat sortzearen gaineko mozio bat onetsi da legebiltzarrean.

Gai horren inguruan asko hitz egin bai, baina gutxi egin da, eta, hori dela eta, parlamentari honek informazio zehatza jaso nahi du Iruñetik kanpo bizi eta beren gaixotasunen tratamendua

jasotzera Iruñeko ospitaletara etorri behar dutenen joan-etorrien gastuen ordainketari buruz.

2009ko aurrekontuan ba al dago kontusailen bat Iruñetik kanpo bizi eta laguntza medikoa jaso-

tzera Iruñeko ospitaletara etorri behar dutenen joan-etorrien gastuak ordaintzeko?

Iruñean, 2009ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko zertan oinarritu zen Nafarroako Gobernua 2009rako aurrekontu orokorren proiektuko dirusarreraren atala prestatzeko.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zertan oinarritu zen Nafarroako Gobernua 2009rako aurrekontu orokorren proiektuko dirusarreraren atala prestatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer premisa, adierazle, datu eta aurreikuspenetan oinarritu zen Nafarroako Gobernua 2009rako aurrekontu orokorren proiektuko dirusarreraren atala prestatzeko?

Iruñean, 2009ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

